

ERAKUSKETA
Tromelin,
esklabo ahortzien
uhartea



Max eta uharte ahantzia



ERAKUSKETAREN LIBURUXKA
GAZTE PUBLIKOARENTZAT FAMILIAN



KASU

Azal iezaiozue zuen haurrari museo batek zaindu behar dituela erakusgai diren objektuak gure historiaren lekuko baliotsuak direlako. Obrak eta objektuak behatzen irakas iezaiozue... baina hauek hunkitu gabe!



Zer da arkeologo bat?

Itsasoa edo lurraren azpian atzematen eta aztertzen dituen hondarkinak deitu gauzakin zaharrekin (buztinezko ontziak, oihalak, janari hondarrak, itsasontzi hondakinak...) gizakien historia berrosatzen duen pertsona da.

Nor da Max?

Izena: Max

Deitura: Guérout
Béziers-en bizi da (Hérault)

Ikasketak: Itsas Eskola.

Lehen lanbidea:

itsasontzi kapitaina.

40 urtetan arkeologo bilakatzen da, Triton, miaketa itsasontzia manatu ondotik, aurkitu itsasontzi hondarkinei interesatu da.

Oroitzapen onena arkeologo gisa:

Lomellina, 1516an hondoratu genoaar itsasontziaren miaketak (10 urteko urpeko miaketak).



Historiaurrea Antikitatea Erdi Aroa Aro modernoak Aro garaikidea 21. mendea

- 3000

476

1492

1760

Utileren istorioa.

1870

2006tik 2013ra
Max Guérout-en
miaketa arkeologikoak
Tromelin uhartean



Maxek kontatzen digun istorioa gaur egun Tromelin uhartea deitua den Hondarrezko uhartean iragaiten da.

Gelaren erdiko maketa beha ezazu.

Uharte hau sumendi bat da eta honen gainean korala hazi da. Honen gaineko partea besterik ez da uretik ateratzen.

Indiako Ozeanoan kokatua da, Afrikatik hurbil, Madagaskarren ekialdean.

Hondarrezko uhartearen inguruan, koralezko uharri bat dago.

Itsasoan murru batzuk osatzen dituen organismo bizia da korala. Itsasontzi batek murru hauetako bat jotzen duelarik, kalte handiak badira usu!

Horixe gertatu zaio *Utile* deitu itsasontziari 1761ean, Max sortu baino anitzez lehenago...



Ondoko mapan leku onean idatz ezazu:



AFRIKA
MADAGASKAR
Frantziako UHARTEA (= MAURIZIO uhartea)
BOURBON UHARTEA (= REUNION uhartea)
INDIAKO OZEANO - INDIA

Eta Hondarrezko uhartea ingura ezazu.

TESTUINGURUA

Utileren istorioa Argien mendean iragaiten da (18. mendea).

Frantziako erregea Luis XV da. Herri joria da, gosete gutiago dira, biztanle kopurua emendatuz doa.

Burgesak aberasten dira lurrin-makina gisako aurkikuntza berriei esker. Itsas merkataritza garatzen da koloniek egin tratuei esker.

Frantziak mendean hartu dituen urrutiko lurak dira koloniak, eta hauekin merkataritza garrantzitsua antolatzen du. Han berean atzematen ez dituen mozkinak beste nonbaitik ekartzen ditu: Kanadako larruak, Txinako te eta porzelanak, Antilletako azukrea, kafea, kakaoa, kotoia, Indietako espeziak, Bourbon (Réunion) uharteko kafea... 18. mendeko Europan gero eta gehiago kontsumitzen diren janariak. Europar herri indartsuenek ere (Danimarka, Espainia, Ingalaterra, Portugal...) koloniak daukate. Gainera, Ingalaterra eta Frantziak Zazpi urteko gerlan sartzen dira 1756an kolonia batzuk lortzeko.

Mende hau zientzia eta teknikari arrunt bihurtua zaie. Voltaire, Jean-Jacques Rousseau, Charles de Montesquieu bezalako filosofoek (hitz horrek zuhurtziaren adiskideak erran nahi du) mundua adimenaren arabera antolatua balitz, gizakiak askeak, ikasiak eta parekoak balire, zoriontsuak liratzkeela diote. Pentsalari hauek gauza anitz zalantzan ezarriko dituzte, hala nola Jainkoa



edo Erregearen erabateko boterea, adibidez. Haien idazkien bidez entseatzen dira gizakiak gai horiei buruz gogoetaratzea. Burgesek biziki gustukoak dituzte haien ideiak.




Zoaz 1. estaira, 17. gelara, istorioaren hastapenerako



Begizta ezazu hemen duzun bista Baionako portuko maketan. Hemen eraikia izan da *UTILE* itsasontzia 1759an. Colbert, Luis XIV.en ministroak ezarri Erregearen parkea izeneko ontziola handi honek itsasontziak eraikitzen ditu errege ontzidira-ko. Egur anitz behar da: kroskoa egiteko Senpereko oihanetako haritza erabiltzen da; mastak Pirinioetako izaiekin eginak dira (Aspeko harana, Iratiko oihana). Eta kanoietako metala Baigorriko burdinole-tatik dator.

Gertaldi hau begizta ezazu. Zer gertatzen da?

Itsasontzia konpontzen ari dira, radouba da. Kroskoa berotzen da itsas belarrak eta maskor-dunak suntsitzeko. Kroskoa bi-koizten da ere zizare barrenariez (zurak jaten dituzten itsas be-roetako moluskuak) babesteko. Horretarako, itsasontzia ontzio-lan ezartzen da (makurtzen da normalean uraren azpian diren zatietara heltzeko). Langileen ontzi ordoki eta errektangularrak karelak dira.



Zoaz 15. gelara

« Le roi du jour » xalanta beha ezazu istinkatzailearen tresnen erakusleihoaren aldean.



Begira ezazu ubide mota hori Kaienen giblean: enborrak trenpan uzten dira bertan, malguak eta azkarrak izan daitezten ondotik erabiltzeko!




☐ Itsasontzia istinkatu



☐ Zuhaitza moztu



☐ Taulak juntatu



☐ Taulak zerraz moztu

Taulen artean, landare idortu izpiak ikusten ditugu: kalamua da. Mailu ukaldika jotzen diren burdinekin taulen artean sartua izan da itsasontzia hermetikoa izan dadin. Iztupa deitua da. (Begira itzazu tresna horiek erakusleihoan). Ondotik, itsasontzia bikez estaltzen da: egur arraxintsuz egin pasta beltz itsaskor mota bat, erakusleihoaren beheko aldean istinkatzeko mundrun pintzelaren gainean (gider luzeko eskuila) ikusten duzuna. Lan hau burutzen duena ISTINKATZAILEA da. Zenbakiak ordena onean eman itsasontzia-ren eraikuntzeko urratsak adierazteko:

Etxe hauek atzeman itzazu ontziola baten giblean. Kaienak deitzen dira. Baina zertarako balio dute?

Horren jakiteko, azpiko asmakaria argi ezazu.

N A
I S A S K
G T I
R U Z

Zure laguntzeko: KARAKOIL kodea



I _ _ _ S Z _ _ _ _ EN etxeak dira.

Baiona Erdi-arotik goiti ontziolari esker fama-tua bilakatzen da. Zenbat atzematen dituzu maketa honetan?



☐ 2 ☐ 5 ☐ 7



1759an, *Utile* molde horretan eraikia izan da.

Zoaz orain 2. estaira, 23. gelara, haren bidaia segitzeko





INDIETAKO FRANTSSES

KONPAINIA mahaia

Ekialdeko Indietako Frantses Konpainiak erosi zuen *UTILE* itsasontzia. Haren esku zituen 30 / 40 ontziekin, Konpainia hau Indiak eta Txinarekin tratuetan ibiltzen bakarra zen: erregeak eskaini zion pribilegio hau! Faktoretan (merkataritza transakzioak burutzen diren hiriak: Kanton, Pondichery, Chandernagor... adibidez) portzelana, kotoizko oihalak, kafea, tea, espeziak... erosten ditu.

Mozkin hauek beha itzazu zure inguruan. Biperbeltza, itze-kanela, kanela senti ditzakezu upelen gainean.



18. mendean biziki modan zen zoin edari zerbitzatzeko balio zuen objektu honek?

Zer ekartzen dute itsasontziek Bourbon uhar-tetik Frantziara?

Itsasontzi hori atzeman ezazu gelan

Itsasontzi honen antza handia zuen *Utilek*. Filibotea da, 45 m-ko luzera inguru (zu orain zauden erakusketa gela baino bi aldiz luzeagoa) eta 10 m-ko zabalera duen garraio ontzia da. Kanoiak baditu kortsa-rioen erasoan kontra defenditzeko*!

* Kortsarioek erregearentzat lan egiten dute eta etsaien itsasontziak gerla garaian bakarrik harrapatzen dituzte.



ESPEZIAK taula

Konpainiako itsasontziak ekartzen duen espezia bat marraz ezazu eta bere izena idatz.



KARGATZEA / ESKIFAIA taula

Utile itsasontziak Frantziako Uhartera buruz, Indiako Ozeanoan dagoen koloniar buruz abiatu behar du, hazkurria eta salgaiak eramateko.

Baionan, *Utileren* «hornitzea» burutzen da, bidaia egiteko beharrezkoak diren gauza guztiak kargatuz: belak, janaria, ura, armak, lasta (burdinezko barrak bezalako gauza biziki pisuak) itsasontziak itsasoa ongi atxik dezan... eta marinela kontratatzeko.

Utileren prestakuntzaren bideoa begira ezazu.

Zenbat marinela dauka *Utilen*?

Aitzindari Nagusien zerrenda beha ezazu.

Nola deitzen da Kapitaina (zerrendako lehena):

Zenbat irabazten du hilabetean?

(begira ezazu «hilabetesaria» zutabea).

..... libra

(Garai hartako moneta da libra)






«Vue de Bayonne, prise à mi-côte sur le Glacis de la Citadelle», 1761ean Joseph Vernet-en margolan handia beha ezazu.

Luis XV-ek Joseph Verneti Frantziako portuak margotzea eskatu dio. Haren erregealdiko manatze garrantzitsuena da. 6.000 libra ordaindua da margolan bakoitza! Erregeak portuen aktibitatea eta merkataritza, herriaren aberastasuna eta gehien bat Frantziaren indarra erakutsi nahi ditu.

Beha itzazu koloreen urguritasuna (zerua, hodeiak, ura...) eta irudiaren zehaztasuna!



Nafarroarekin egiten zen artile merkataritza irudikatzen dute ardiek.

Ingelesak ez erasotzeko herbeheretar bandera dakarren itsasontzi hau, Lorientetik *Utileren* kargamenduaren parte bat ekartze-ko etorri Fritzland izan daiteke.

Gezirik ez da ikusten Baionako katedralean. 1873an baizik ez zaizkio ezarriko, Emile Boeswillwald-ek zahar-berritze obrak burutzean.

Frantziako Atea, hiria eta portua babesteko Errobi eta Aturriko bateragunean dagoen harresia.

Zurezko San Izpiritu zubia, altxatzen den arteka batez osatua da, itsasontziak pasatzen uzteko.

Tilola, xalanta, galupa, xalibardona... ibaiontzi ugari badabilta Errobi eta Aturri gairi arrantza edo garraio jardueran.

Itsasoa ongi irudikatzeko, ongi ezagutu behar da. Erraten ohi da Joseph Vernetek bere burua itsasontzi bateko mastari lotuarazi duela ekaitza zelarik, uraren mugimenduak ongi ulertzeko gisan!



Faltsutzaille xoriburu batek Joseph Verneten margolana kopia nahi izan du. 8 hutsak atzeman itzazu.*

* Margolan bat kopia ondotik egiazkoa dela sinetsarazten duena.

Plano horretan, gurutz batekin adieraz ezazu non zegoen Joseph Vernet margolana burutzen zuelarik.



Hutsak: Hegazkina, Paraxutista, Zubirik ez, Gezia katedra-laren gainean, Itsas scooter, Bola jokalariek, Bi emazte belarren gainean jarriak. Laborari emaztea behiaren gainean.

Ukipen pantaila UTILEREN BIDAIA

Ukipen pantailan *Utileren* ibilbidea segi ezazu. Ibilbidea ondoko mapan marraz ezazu.



ITSASONTZIRATU SALGAIK ETA ESKLABOAK taula

1761eko ekainaren 29an, Frantziako uharteko gobernadoreak *Utile* Madagaskarrera igortzen du janari bila. Zer erosten du kapitainak?

Salgai baimenduak:


.....
.....

Baimendurik gabeko salgaiak (gordeka tratatuak):

.....

TESTUINGURUA

1761ean, Frantziako uhartea eta Bourbon uhartea frantziar koloniak dira. 15.000 biztanle badira Bourbon uhartean, hauetarik %80 esklaboak, eta 17.000 biztanle Frantziako uhartean, hauetarik %85 esklaboak. Frantsesek kudeatu kafe, kotoi, indigo... etxaldeetan lan egiten dute esklaboek. Kafe etxalde bat atzeman ezazu mahaian.



TESTUINGURUA

ZER DA ESKLABO BAT?

Askatasunik gabe bizi den pertsona da esklaboa: berarengan erabateko boterea duen pertsona baten jabetasuna da. Altzairu bat, salgai bat bezala hartua da, esklaboa noiznahi saldua izaten ahal da, bere familiarengandik berex, bere jabeak eskatzen dizkion lan guztiak betetzera behartua da.

ZER DA TRATULARITZA?

Esklaboen tratularitzarekin, gizaki batzuk esklabo bezala bihurtzen dira, haien nahiaren kontra salduz, garraiatuz.

(Esklabotasunaren ezeztapenerako Memorialaren definizioak. Nantes)

Badu aspaldi esklabotasuna badagoela (Babiloniako Erresuman jadanik, gure aroa aitzineko 1750 urte lehenago). Jendea esklabo bihurtzen da gerlan hartua izan ondoren, edo bere gurasoak esklaboak baitira, edo razzia baten ondorioz (bahiketa).

Antikitate garaian, Atenas edo Erroman, esklaboak ugari dira eta ordaindu gabeko lan zailak burutzen dituzte: sehi, laborari, meatzetako lana...

18. mendean, Europarrek esklaboak erosten dituzte Afrikan, eta ondotik Ameriketako kolonietan saltzen, kotoi, kafe, kakao, azukre kanabera... landa lekuetan. Ondotik, salgai tropikal horiek Europara ekartzen dituzte. Merkataritza triangularra da. Esklabo anitz hiltzen dira itsasontzian, bidaiaren denboran, baldintzak biziki gogorak baitira.

Utileko Kapitainak erosi esklaboak Madagaskartik etortzen dira, madagaskartarrak dira. Bartzuetan itsasontzietako aitzindariak esklaboak haien konduko, beraiek aberasteko erosten eta saltzen dituzte: Madagaskarren 30 piastratan erosi esklabo bat 70 piastratan (366 libra) saldua da Frantziako uhartean!

HONDORATZEA mahaia

Zer gertatzen da 1761eko uztailaren 31ko gauan. Utile Rodrigues uhartera buruz doalarik, kapitainak bertan esklaboak utzi nahi dituelako?

☐ Deus ez da gertatzen. Denak lo dira, eta itsasontzia Rodrigues uhartera atsaskarirako justu etortzen da.

☐ Kapitainak zehaztapen gutien duen mapa erabiltzea erabakitzen du, itsasontziak koral uharria jotzen du Hondarrezko uhartearen inguruan eta hondoratzen da.*

☐ zikloi baten erdian harturik, itsasontzia hondoratzen da.

Mahaiaren gainean : «Itsasoak saihestetik hartu gaitu...» esaldiarekin hasten den testua irakur ezazu.

Hillary Dubuisson de Keraudic, itsasontzian den idazleak hondoratzea kontatzen du.

Zer egiten du Keraudic-ek esklabo bat berak duen taula berdinari lotzen entseatzeko delarik?


☐ Bere taulari lotzen uzten du eta uhinek biak ekartzen dituzte itsasbazterrera.

☐ 2 ostiko ematen dizkio eta taula askarazten dio, horrela itotzen utziz.

☐ Taula uzten dio eta igerika itsasbazterrera sartzen da.

18 marinel eta 70 esklabo inguru itotzen dira.

Zergatik esklabo gehiago hiltzen dira marinelak baino?



*Hondoratzea: itsasontzi bat urperatzen delarik.

Hondoratzetik bizirik atera direnak Hondarrezko uhartean elkartzen dira. Uhartea ttipi-ttipia da, urik ez da, bakarrik scaveloak (zuhaixkak) eta getozka (landare herrestaria). Xoriak (txenada ilunak) eta dortoka berdeak bertara etortzen dira erruteko. Itsasoa azkarra da, haizeak (alisioa) geldi-geldia ufatzen du eta batzuetan zikloiak badira. Itsas eta haize presondegia da.

Castellan du Vernet lotinantak putzu bat zilarazi eta itsasontzi ttipi bat eraikiarazten du uhinek ekarri *Utileren* hauskinekin. Frantses marinela uhartetik joaten dira baina esklaboak bertan utziz, itsasontzia ttipiegia baita. Hondoratu itsasontzitik berreskuratu janaria uzten diete haien bila itzuliko direla hitzemanen.

Baina Frantziako uharteko gobernadoreak uko egiten dio esklaboen bila joateko itsasontzi bat igortzeari. 70 madagaskartar esklaboek Hondarrezko uhartean egon beharko dute. Gehienak aski fite hiltzen dira eta, azkenean, 15 urteren buruan, Errege ontzidiko itsasontzi bat hondoratuen bila etortzen delarik, 7 emazte eta 8 hilabeteko nini bat baizik ez dira gelditzen.



HISTORIATIK ARKEOLOGIARA

**EZ DA ZUZENA
AHANZTEA!**

Maxek istorio horren berri duenean, beti ideia berdinarekin gelditzen da: indusketak egitea ulertzeko nola egin duten hondoratu hauek 15 urtez bizirik irauteko. Kapitain beldurgabe honek ez ditu entzun nahi esklaboen aztarna guziak zikloiek desagerrarazi dituztela erraten diotenak! Miaketak egiteko behar duen dirua UNESCO, Banque populaire et du Patrimoine, Réunioneko Eskualdea eta kontseilu orokorrari esker biltzen du. Denei garrantzitsua iruditu zaie ahanzturan iragan hamabost urte horiek argira ekartzea, pertsona hauei jasanarazi bidegabekeria ikaragarri hau, abandonatze hau, 250 urte berantago konpontzen entseatzeko bezala.


Thomas Romon, indusketak burutu dituen INRAP erakundeko arkeologoa eta hamar bat pertsonako taldearekin batera, madagaskartar pertsonen egonaldi hartan bizi izan dutena konta dezakeen gauza oro bilatuko du Maxek, ur azpian eta uhartean.



Beha ezazu arkeologoek atzeman dutena.

JAN/EDAN

Ondoko animaleen artean, ingura itzazu Madagaskartarrek jan dituztenak Hondarrezko uhartean.



Nola jakiten ahal da txenadak janak izan direla?

- ☐ Errezeta liburuxka bat aurkitua izan delako.
- ☐ Egoste aztarnak zituzten hezur anitz eta supazter bateko errautsak atzemanak izan direlako.

Janaria egosteko baliatua izan den objektu bat marraz ezazu




FABRIKATU/KONPONDU



Ontzi hau begizta ezazu:
Zenbat aldiz konpondua izan da?

.....
Hor egon behar ez duen zatia ingura ezazu:



BIZI

Beha ezazu bizitegiaren maketa. Madagaskartarrek murru biziki lodiak eraiki dituzte haien bizitegietarako, seguru aski haizeez (alisioak) eta zikloiez babesteko.

Zerezkoak dira?

.....

Madagaskarreko ohiduren arabera, ekai gogorak hilobiak egiteko atxikitzen dira. Hemen, jakin izan dute ohiduren gainetik pasatzen haizeez eta zikloiez babestuz haien biziak salbatzeko.

CASTELLAN DU VERNET-EK SALBATUAK mahaia

AZKENEAN SALBATUAK!

Haren eskaera lehen aldikotz egin eta hamaika urte berantago, Castellan du Vernetek berriz galdegiten du itsasontzi bat Hondarrezko uhartera igorria izan dadin Madagaskartarren bila joateko. Marinako Ministroak erantzun behar dio aldi honetan eta... onartzen du! Igorritako itsasontzia «La Dauphine» deitzen da, Jacques Marie de Tromelin Zaldunak du manatzen.

7 emazte eta 8 hilabeteko nini bat atzematen ditu uhartean. Frantziako uhartera eramaten ditu. Jacques Moïse deitzen dute ninia.

TESTUINGURUA

Urte guzi haietan, boz batzuk altxatzen dira tratularitza eta esklabotasunaren ezeztapena eskatzeko. 1794an, esklabotasuna ezeztatua da frantses kolonietan. Baina Napoléon Bonapartek berrezartzen du 1802an! Azkenean, 1848an, esklabotasuna betirako ezeztatua da Frantzian.

Arkeologoek lanari esker, ikus dezakegu zoin gogotsu, adimentsu eta adoretu ziren madagaskartar hondoratuak. Eta deusek ez duela Xuriekiko omen duketen desberdintasuna justifikatzen. Abandonatuak eta ahanzturak zangopilatu duintasuna eta gizatasuna berriz ematen die erakusketa honek, horrelako mezua zabalduz.

ETXEAN SEGITZEKO...

Jende gabeko uharte batean hondoratua bazina...

Zenbat denboraren buruan eraikiko zenuke etxe bat «gai gogorrez» (erran nahi baita harria, koral bezalako ekaiekin)?

Zer zenuke gehienik eskas?

1-

2-

Itsasora bota botilako mezua asma ezazu:

Hitz zopa

M	E	A	I	N	G	U	R	A	K	S	K	L
I	A	A	B	I	T	Z	E	A	K	O	T	A
S	T	D	U	N	X	T	A	L	I	S	I	O
O	A	S	A	R	E	U	H	I	N	E	S	N
K	S	C	A	G	N	P	Z	I	K	L	O	I
A	B	A	E	S	A	U	H	A	N	D	R	E
I	I	E	S	Z	D	S	E	M	Z	L	O	U
K	Z	V	U	T	A	O	K	U	L	A	S	H
S	I	O	R	K	I	T	R	A	A	B	P	A
A	T	L	D	A	L	A	O	T	R	E	E	R
S	E	A	I	N	U	P	S	S	O	T	N	T
T	G	E	N	O	N	N	K	U	K	K	A	E
I	I	U	T	I	L	E	O	A	A	B	A	R

aingurak – alisio – amu – bat – bizitegi – itsas dortoka – itsaskiak – itsaso – itzeak – kanoi – koral – krosko – labe – Madagaskartar – putzu – scaevola – sorospen – sua – txenada ilun – uhandre – uharte – uhin – urdin – Utile – zikloi.

Gelditzen diren hizkiekin, atzeman ezazu zoin den Frantzian 1848an, Victor Schloelcher-ek bultzaturik, hartua izan den dekretua (gobernuaren erabakia).

.....



Castellan du Vernetek idatzi gutunaren lehen lerroan, zoin da esklaboen bila joateko zergatia adierazten duen hitza?


.....



Esklabotasunaren ezeztapena



Naski burruuntzali gisa erabilia zen uhandre maskorra atzematen lagunt ezazu madagaskartar neska gaztea.



Eta Castellan du Vernet lotinanta bazina?

Marinako Ministroari gutun bat idatz izeariozu Madagaskartar hondoratuen salbatzera joan behar dela buruan sarrarazteko.

Ministro Jauna,

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Gehiago jakiteko:

Max Guérout/Thomas Romon, *Esclaves oubliés de Tromelin*, CNRS Argitaletxea, 2010, Berrargitaratze emendatua 2015.
 Max Guérout, *Tromelin, Mémoire d'une île*, CNRS Argitaletxea, 2015
 Sylvain Savoia, *Les esclaves oubliés de Tromelin*, Aire libre-Du-puis, 2015 (BD honetako marrazkiak ikusgai dira)
 Irène Frain, *Les naufragés de l'île Tromelin*, J'ai lu, 2009 (eleberria)
La traite bayonnaise au XVIIIe siècle, Jacques de Cauna, Marion Graff, Cairn Argitaletxea, 2009.
 Marcus Rediker, *A bord du négrier, une histoire atlantique de la traite*, Seuil, 2013
 Jean Meyer, *Esclaves et négriers*, Découvertes Gallimard, 2007
 René Favier, *Les Européens et les indes orientales au XVIIIe siècle*, Ophrys, 1997.
C'est à ce prix que vous mangez du sucre : les discours sur l'esclavage d'Aristote à Césaire, Patrice Kleff, Flammarion, 2006.
[http://minisites-charte.fr/sites/alexandrine-civard-racinais/Robinsons de l'île Tromelin sortzailearen gunea](http://minisites-charte.fr/sites/alexandrine-civard-racinais/Robinsons%20de%20l'île%20Tromelin%20sortzailearen%20gunea).
 TDC n° 929, *L'Archéologie, 2007ko otsaila*
www.taaf.fr/les-esclaves-oublies-de-tromelin. Site des TAAF (Frantziako Austral eta Antartikar Lurak). 2013ko indusketen liburua.
www.inrap.fr (Prebentziozko Indusketen Institutu Nazionala),
 « Tromelin » jo.
archeonavale.org/gran2012/index.php/2012-02-13-18-51-03/
 2013ko misioa.
 Tromelineko indusketei buruzko 50'-ko bideoa:
<https://www.youtube.com/watch?v=HzKblzJBz6U>

Haurrentzat:

Max Guérout, *Esclaves et négriers*, Voir l'histoire bilduma, Fleurus, 2012 (Tromelineko indusketei buruzko KD batekin).
 Alexandrine Civard-Racinais/ Aline Bureau, *Les Robinsons de l'île Tromelin*, Belin, 2016 (liburuxka honetako irudiak obra horretatik hartuak dira).
La construction navale en bois - François PLACE, Le livre des navigateurs. Gallimard, Découverte cadet bilduma, 1988.

Francis Dieulafait, *Copain de l'archéologie*, Milan, 2016 (berrargitaratzea)
 Raphaël de Filippo, *L'archéologie à petits pas*, Actes Sud junior/ INRAP, 2007
 Philippe de Carlos, *Le dico de l'archéologie*, De la Martinière jeunesse, 2006
 Mon quotidien 2016ko apirilaren 27
 Histoire Junior n°47, 2015eko azaroaren 23.
 Georges Delobbe, *Esclavage et traites négrières*, PEMF 2005.
 Francesco D'Adamo, *Iqbal : un enfant contre l'esclavage*, Hachette 2000.
Je suis une esclave : journal de Clotée, 1859-1860, Gallimard, 2005.
 Yann Marchand, *La révolte d'Epictète*, Les Petits Platon.

Liburuxka honetan erabili obrak:

Louis XVaren potreta, 1746. Dupin graveur. BNF.
Baiona, harresien mapa, 1764. Bellin Jacques Nicolas. Baionako Euskal Museoa.
 Kafe isurmokoduna letradun apaindurarekin.
 Lorient, Indietako Konpainiako Museoa.
 Ohe apaindura zati bat. Kotoi inprimatu oihala, 18. mendea.
 Xavier Petitcol bilduma, Saint-Pandelon.
Kafe landa eremua Bourbon uhartean (erreproduktzioa).
 Jean-Joseph Patu de Rosemont. 18e siècle. Quai Branly Museoa.
Baionako portuaren lehen ikuspegia. Joseph Vernet. 1761. Marinako Museo nazionala.
Baionako ikuspegia Zitadelako malda erdian hartua eta Baionako beste ikuspegia bat Boufflers ibilbidetik hartua. Charles-Nicolas Cochin eta Jacques-Philippe Lebas. Estampak, Joseph Vernet. 1764.
 San Carlosaren maketa. Gordailua. Ondare bildumen zentroa.
 Gipuzkoako Foru Aldundia.
 Baionako Euskal Museoa: (zehaztasuna) René Choquet. *Euskal laboraria zaldiz*. 1920 inguru.
Les robinsons de l'île de Tromelin obratik hartu irudiak, Alexandrine CIVARD-RACINAIS eta Aline BUREAU, Belin 2016.
 Argazkiak: GRAN. Baionako Euskal Museoa. DR.